

## TXISPAREN AMETSA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

### Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukiak

**Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala:** 1., 2., 3. eta 4. blokeak

**Inguruaren ezagutza:** 3. blokea

**Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena:** 1., 3. eta 4. blokeak

## IRAKURKETA-FITXA: TXISPAREN AMETSA

### Behariko dugun materiala

*Txisparen ametsa ipuina.*

### Garapena

- Irakurri neska-mutilei *Txisparen ametsa* ipuina, eta bertan azaltzen diren alderdi guztiak komentatu.
- Ipuina irakurri ondoren, galdera batzuk egingo dizkiegu neska-mutilei, ipuinaren edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.
  - Txispak zergatik ezin zuen bidaiatu?
  - Zer esker ezagutzen zituen Txispak beste lekuak?
  - Zer gertatu zitzaion Fitori hegan zihoala?
  - Zer egin zuen Txispak Fitori laguntzeko?
  - Zer egin zuen Fitok Txispari bere esker ona adierazteko?
- Amaitzeko, honelako galderak egingo dizkiegu:
  - Zer da ipuin honetatik gehien gustatu zaizuena?
  - Egokia iruditu al zaizue Txispak egin duena?
  - Txispak sariren bat lortu nahi al zuen ondo jokatzearen truke? Hori ona al da?
  - Ondo egin al zuen Fitok Txispari esker ona adierazten? Eskerrak ematea garrantzitsua al da?



## TXISPAREN AMETSA

Bazen behin Ostadar izeneko herrixka bat. Harrizko etxe politak zeuden bertan, eta ekilore-soro ederrak.

Ekilore haien artean, bazen bat bereziki eskuzabala: Txispa zuen izena. Eta Txispari asko gustatzen zitzaion irakurtzea.

Bere ametsik handiena egunen batean bidaia bat egitea zen, liburuetan agertzen ziren lekuak ezagutu ahal izateko. Baina hori ezinezkoa zen, Txispa landare bat zelako, eta landareak ezin direlako lekuz mugitu.

Hala eta guztiz ere, guk guztiok magikoa den ezaugarri bat daukagu gure barruan: irudimena. Eta, hain zuzen ere irudimenari esker, mundu osoan barna ibiltzen zen Txispa.

Uda hasten zen egunean bertan, Loreen Jaialdia ospatzen zuten Ostadar herrixkan. Ekilore guztiak apain-apain jartzen ziren eta dantzak entseatzen aritzen ziren.

Txispari asko gustatzen zitzaion dantza egitea, baina kontu handiz dantzatzen zen beti:

—Ez nuke nahi nire haziak erortzerik, beharbada norbaitek haien beharra izango du eta.

—Ze eskuzabala zaren, Txispa! Besteei lagundu nahian ibiltzen zara beti! —esaten zioten.

Behin batean, jaialdia amaitu zenean, iluntzean, oso urrutitik zetorren antzara talde bat Ostadar herrixkaren gainetik igaro zen. Antzara haietako bat Fito zen.

Ordu asko zeramatzaten etengabe hegan, eta Fito neka-neka eginda zegoen. Oharkabean, lokartu egin zen hegoan zihoala, eta pixkanaka-pixkanaka erortzen hasi zen. Halako batean, buuuuuun!, zuhaitz baten adarren kontra jo, eta Txisparen ondora erori zen!

—Aaaaa! Zer gertatu zait? Non nago?

—Lasai, txiki —esan zion Txispak—. Ondo al zaude? Minik hartu duzu?

Fitok hego bat apurtu zuen, eta horrela ezin zuen bidaia jarraitu.

—Nekatuta nengoenez, gero eta polikiago joan naiz hegan egiten, eta taldeko azkena gelditu naiz. Segur aski inork ez nau erortzen ikusi, eta uda amaitu arte ezin izango dute nire bila etorri. Oso kezkatuta egongo dira!

—Zaude lasai. Mezu bat bidaliko diegu hemendik igaroko den hurrengo antzara taldearekin, ondo zaudela jakin dezaten. Hegoa sendatzen zaizun arte, nirekin egongo zara eta nik zainduko zaitut —esan zion Txispak.

Fitok uda osoa igaro zuen Ostadar herrixkan. Fito mundu osoan barna ibili zenez, han-hemenka ikusitakoak kontatzen zizkion Txispari, eta Txispa aho-zabalik egoten zen Fitoren kontuak entzuten.

Uda amaitu zenerako, sendatu egin zen Fitoren hegoa, eta Ostadarretik joateko ordua iritsi zitzaion. Fitori ideia paregabe bat bururatu zitzaion. Sorpresa ederra emango zion Txispari!

Hurrengo egunean, antzara pila bat etorri zen hegan, eta eskerrak eman zizkieten Txispari, hain eskuzabala izateagatik eta Fito hain ondo zaintzeagatik.

Txispa oso pozik zegoen, Fito berriro bere taldearekin elkartzera zihoalako, baina triste ere bazegoen, utzi egingo ziotelako elkarrekin egoteari.

Orduan, Fitok esan zion:

—Txispa, ez egon triste. Nirekin bidaiatuko duzu, eta nahi dituzun leku guztiak ezagutuko dituzu.

—Bidaiatu egingo dudala? Baina, Fito, ni ezin naiz hemendik inora joan. Ekilore bat naiz.

—Baina bidaiatzeko modu asko daude, Txispa. Uda guztian nire elikagai izan diren haziak dauzkazu zuk.

—Haziak?

—Bai. Nirekin eramango ditut, eta hegan noanean hainbat lekutan askatuko ditut. Horrela, leku horietan zu bezalako ekiloreak jaioko dira, eta zure ametsa bete egingo da. Gainera, animalia askori elikatzen lagunduko diezu.

Txispa pozez zorutzen zegoen. Eskuzabala izan zen, beharrean zegoen antzarari lagundu ziolako, eta beti gogoan izaten zituelako besteak. Horregatik, azkenean, iritsi zen bere ametsa beteko zen eguna.

## ELIKA DEZAGUN TXISPA

### Beharko dugun materiala

Katilu edo ontzi bat, antzaren habia irudikatzeko. Irudimena baliatuz, nahi bezala margotuko dugu.

Zeta-papera, lau koloretan (gorria, orlegia, urdina eta horia).

### Aurretiazko oharra

Jarduera hau Haur Hezkuntzako azken mailan dauden ikasleekin egiteko dago pentsatuta, adin horretarako garatuta baitauzkate jarduera honen helburuak modu egokian landu ahal izateko behar diren gaitasunak.

Lau talde sortuko ditugu, eta talde bakoitzari kolore bateko zeta-papera emango diogu, bolatxoak egiteko. Baina talde bakoitzak kolore bakarreko bolatxoak izango dituenez, talde guztiek elkarbanatu egin beharko dituzte beren bolatxoak, lau koloretakoak izateko.

Lehen fasea egin ondoren, nolabait antolatu egin beharko ditugu neska-mutilak, habiak denboratxo batez «elikatzeaz» ardura daitezen.

### Garapena

- Irakurri neska-mutilei *Txisparen ametsa* ipuina, eta bertan azaltzen diren alderdi guztiak komentatu.

#### 1. fasea

- Egin lau talde. Talde bakoitzari zeta-papera eman, eta esan paperarekin bolatxoak egiteko. Gutxienez 40 egin beharko dituzte.
- Azalpentxo bat eman:  
«Demagun ekiloreak garela, eta halako batean antzara pila bat etortzen dela guregana, gosetuta, gure haziak jatera. Datozen bi asteetan, janaria eman beharko diegu. Zuek egindako bolatxoak izango dira haien janaria. Antzarak ondo elikatuta egon daitezen, habia bakoitzean lau koloretako bi bolatxo ipini beharko dituzue egunero».
- Galdetu taldeei:
  - Kolore guztietako bolatxoak al daukazue? Zein koloretakoak dauzka talde bakoitzak? Zein kolore falta zaizkizue?
  - Zuen ustez, zer egin dezakezue kolore guztietako bolatxoak izateko? (Pentsa dezatela eta eman dezatela beren iritzia).
- Ondoren, utzi neska-mutilei konponbidea beren kasa bilatzen. Bitartekari-lanak egin ahal izango dituzue, eta jarduera pixka bat bideratu ere bai, galduta ikusten badituzue. Bestalde, trukeak zer baldintzatan egiten diren begiratu, eta, beharrezkoa izanez gero, iruzkinen bat egin.
- Talde guztiek kolore guztietako bolatxoak daukatenean (kolore bakoitzeko bost bolatxo), bukatutzat emango dugu fasea.

## Hausnarketa

- Denak lurrean borobilean eseriko gara, eta galdera batzuk egingo dizkiegu.
  - Talde guztiek lortu al duzue kolore guztietako bolatxoak izatea?
  - Zer egin duzue hori lortzeko? Elkarri lagundu al diozue?
  - Garrantzitsua al da elkarri laguntzea? Laguntzen al diogu elkarri ikasgelan? Eta etxean?
  - Koloreen banaketa hori baliatuz, elikadura orekatua izatearen garrantzia azpimarra dezakezue, kolore bakoitzak elikagai sorta bat adierazten baitu (gorriak okela, urdinak arraina, orlegiak barazkiak, horiak fruta). Adierazi neska-mutilei oso garrantzitsua dela denetarik jatea, horrela hobeto elikatuta egongo direlako.
  - Ona al da denetarik jatea? Etxean denetarik jaten al duzue?

## 2. fasea

- Jarri bolatxoak ontzi batean, denek eskura izateko moduko leku batean.  
«Orain, antzarei janaria emango diegu. Egunero, zuen arteko bi, hiru edo lauk janaria eman beharko diete. Egunaren hasieran, habiara eramango dituzue bolatxoak, eta egunaren amaieran ontzira itzuli beharko dituzue».
- Egunaren hasieran, arduradunek behar diren bolatxoak eramango dituzte habiara, eta egunaren amaieran ontzira itzuliko dituzte. Ikasle guztiek gutxienez bitan hartu beharko dute parte bolatxoak jartzeko eta kentzeko ardurak izateko jarduera honetan.

## 3. fasea

- Hausnartu:
  - Egunero izan al da janaria gure habian?
  - Kolore guztietako bolatxoak eman al dizkiezue egunero antzarei?
  - Ondo bete al duzue bolatxoak goizean habiara eramateko eta azken orduan ontzira itzultzeko eginkizuna?
  - Zer ikasi duzue jarduera honi esker?



## DENOK IZAN GAITEZKE TXISPA

### Beharke dugun materiala

*Txisparen ametsa* ipuinaren antzerki-egokitzapeneko esaldiak. Mozorroak egiteko materialak.

### Aurretiazko oharra

Jarduera hau epe luzera egiteko dago pentsatuta; ikasturtearen bukaerako jaialdian, adibidez.

Antzerki-egokitzapenaren bidez, sakontasun handiagoz landu ahal izango ditugu ipuinak jorratzen dituen balioak: apaltasuna, doakotasuna, eskuzabaltasuna, elkartasuna eta besteei laguntzea. Noizean behin, denbora bat eskaini ipuinak lantzen dituen balioei, eta arreta berezia jarri guztiek batera esango duten esaldian: «Txispa ekilore bat zen, baina bete egin zen bere ametsa eta bidaiatu egin zuen, eskuzabala izan zelako».

### Garapena

#### 1. fasea

- Eman esaldiak ikasleei. Ahal izanez gero, ikasle guztiek esan dezatela gutxienez esaldi bat, edo esaldi baten zati bat. Neska-mutilek esan beharreko esaldiak koloretan daude: urdinez Txisparenak eta orlegiz Fitorenak. Narratzailea irakaslea izango da.
- Egunero egin entseguak eta behar beste denbora eskaini entsegueri, neska-mutilek esaldiak ulertzeko eta dagozkienak buruz ikasteko.
- Dekoratu neska-mutilek egingo dute, haien sormena baliatuz (ekilore-soro bat, adibidez), eta egokitu zaien pertsonaiaren arabera (Txispa edo Fito) margotuko dituzte kartulinak.

#### 2. fasea

Aukera duzuenean, antzerki-emanaldia egin.

Neska-mutilentzat egokitutako esaldiak (urdinez Txispa eta orlegiz Fito)

- Nik Txispa dut izena eta bidaiatzea gustatuko litzaidake, baina, landare bat naizenez, ezin dut inora joan.
- Hala ere, irudimena daukat, eta horrek bidaiatzeko aukera ematen dit.
- Oso eskuzabala naiz; besteak gogoan izaten ditut beti.
- Oso urrutitik etorri gara hegan janari bila.
- Nekatuta nengoen eta logura etorri zait.
- Ai ene! Zer gertatu da?
- Lasai, txiki. Erori egin zara.
- Ondo al zaude? Zein da zure izena?
- Ni Fito naiz, eta hegoan daukat minik handiena.
- Eta zu nor zara? Ze leku da hau?
- Ni Txispa naiz eta herri hau Ostadar da.
- Lo hartu dut eta erori egin naiz.
- Lasai, Fito. Nik zainduko zaitut.
- Sendatu arte, nirekin egongo zara.
- Nire haziak emango dizkizut jateko, eta lekua egingo dizut lo egiteko.
- Uda bukatzen denean nire bila etorriko dira besteak.
- Pena handia ematen dit agur esan behar izateak.
- Ez kezkatu, Txispa. Gauza eder bat gertatuko da.
- Zure haziak hartu, eta munduan zehar zabalduko ditut.
- Leku horietan ekiloreak jaioko dira eta zure oroigarria izango dira.



## TXISPAREN AMETSA

### 1. ESZENA: HONA HEMEN TXISPA

NARRATZAILEA: Bazen behin Ostadar izeneko herrixka bat. Harrizko etxe politak zeuden bertan, eta ekilore-soro ederrak.

Ekilore haien artean, bazen bat bereziki eskuzabala: Txispa zuen izena.

- Nik Txispa dut izena eta bidaiatzea gustatuko litzaidake, baina, landare bat naizenez, ezin dut inora joan.
- Hala ere, irudimena daukat, eta horrek bidaiatzeko aukera ematen dit.

### 2. ESZENA: LOREEN JAIALDIA

NARRATZAILEA: Egun hartan uda hasten zen, eta Loreen Jaialdia ospatzera zihoazen. Ekilore guztiak apain-apain jarri ziren eta dantzak entseatzen hasi ziren. Txispari asko gustatzen zitzaion dantza egitea, baina kontuz-kontuz dantzatzen zen beti, bere haziak ez erortzeko eta beharra zuenari eman ahal izateko.

- Oso eskuzabala naiz; besteak gogoan izaten ditut beti.

### 3. ESZENA: FITO EZAGUTU ZUENEKOA

NARRATZAILEA: Jaialdia amaitu zenean, iluntzean, oso urrutitik zetorren antzara talde bat Ostadar herrixkaren gainetik igaro zen. Antzara haietako bat Fito zen.

- Oso urrutitik etorri gara hegan janari bila.
- Nekatuta nengoen eta logura etorri zait.

NARRATZAILEA: Oharkabean, Fito lokartu egin zen, eta pixkanaka-pixkanaka erortzen hasi zen. Halako batean, buuuuuun!, zuhaitz baten adarren kontra jo, eta Txisparen ondora erori zen.

- Ai ene! Zer gertatu da?
- Lasai, txiki. Erori egin zara.
- Ondo al zaude? Zein da zure izena?
- Ni Fito naiz, eta hegoan daukat minik handiena.
- Eta zu nor zara? Ze leku da hau?
- Ni Txispa naiz eta herri hau Ostadar da.

NARRATZAILEA: Fitok hego bat apurtu zuen, eta horrela ezin zuen bidaia jarraitu.

- Lo hartu dut eta erori egin naiz.
- Lasai, Fito. Nik zainduko zaitut.
- Sendatu arte, nirekin egongo zara.
- Nire haziak emango dizkizut jateko,



eta lekua egingo dizut lo egiteko.

#### 4. ESZENA: AGURRA

NARRATZAILEA: Fitok uda osoa igaro zuen Ostadar herrixkan. Fito mundu osoan zehar ibili zenez, han-hemenka ikusitakoak kontatzen zizkion Txispari. Eta, pixkanaka, sendatzen joan zen.

- Uda bukatzen denean nire bila etorriko dira besteak.
- Pena handia ematen dit agur esan behar izateak.
- Ez kezkatu, Txispa. Gauza eder bat gertatuko da.

NARRATZAILEA: Fitori ideia paregabe bat bururatu zitzaion Txispari bere ametsa betetzen laguntzeko. Sorpresa ederra emango zion!

- Zure haziak hartu, eta munduan zehar zabalduko ditut.
- Leku horietan ekiloreak jaioko dira eta zure oroigarria izango dira.

NARRATZAILEA: Txispa pozez zorutzen zegoen. Eskuzabala izan zen, beharrean zegoen antzarari lagundu zion, eta beti gogoan izaten zituen besteak. Horregatik, azkenean, iritsi zen bere ametsa beteko zen eguna.

NARRATZAILEA: Txispa ekilore bat zen, baina bete egin zen bere ametsa...

DENAK: ... eta bidaiatu egin zuen, eskuzabala izan zelako.